

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, Giza Eskubideen Zuzendari den Ines Ibañez de Maezturen **AGERRALDIA** eskatzen du, **Giza Eskubideen batzordearen aurrean**.

ZIOA:

2010eko azaroaren 17an Giza Eskubideetako Zuzendariak bere lehen agerraldia egin zuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordearen aurrean. Bertan, besteak beste, Felipe Gonzalezek gerra zikinari buruz berriki egindako adierazpenen balorazioa eskatuta, uko egin zion erantzuteari. Hori dela eta, hurrengo eskaria egiten du:

AGERRALDI ESKARIA:

Aurreko guztiagatik, Giza Eskubideen zuzendari Ines Ibañez de Maezturen agerraldi eskaera egiten du, azaldu dezan zer iritzi duen, eta ze balorazio egiten duen, Felipe Gonzalezek *El Pais* egunkarian egindako hurrengo adierazpenaren inguruan: “Tuve que decidir si se volaba a la cúpula de ETA. Dije no. Y no sé si hice lo correcto”.

Gasteizen, 2010eko azaroaren 17an

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea**